



TESTUA:

AGURRA MILETON

Elkartea lur jota zegoen. Efesora itzuliak ziren Paulori Mileton agur esan eta gero, eta elkarrekin bilduta zeuden, momentu larri hartan elkar kontsolatzeko. Guztiz sinetsita zeuden ez zutela berriz ikusiko eta, Paulok bezalaxe, bazekiten Jerusalem kartzela eta eztabaida zeuzkatela, zain.

Oihartzuna balitz bezala, Andronikok Pauloren hitzaldiko zenbait hitz errepikatu zituen.

-“Biziak ez dit axola, ez zait estimagarria...” Nola irits daiteke pertsona halako jarrera batera –esan zuen- guztiok jakin bai baitakigu noraino gauden gure bizia salbatzeari lotuta? Pauloren askatasun hori eta bere atxikimendurik eza iristezinak zaizkit eta ezin dugu horrela bizi, bera bezala, ez bagara gizon-emakume apartak. Horregatik galdetzen diot neure buruari ea guk jarraitzen dugun eta besteei iragartzen diegun bidea ez ote den izango erokeria. Eta antzeko zerbait gertatzen zait hark gogorarazi dizkigun Jesusen hitzekin: “Zorion handiagoa dago ematean hartzean baino,” Aitortzen dut atseginago dudala hartzea ematea baino, eta ez nago batere ziur nire leialtasunak aldatzeko prest ote nagoen. Jarrera goren hauek ez ote dira, Esteban bezala, martiritzarako aukeratuta dauden heroientzat? Ez ote gara oker ibiliko, gure fedea hartu nahi duten guztiei proposamen hori egitean? Ez ote dira guztiak aldenduko hainbestetan hitz egiten badugu Jesusen gurutzeaz? Nola erakarriko ditugu inperio honetako herritarrak, ohorearen eta edertasunaren atzetik dabilzanak? Lehenik eta behin, ez ote genuke Jesus izaki jainkotiarren arteko boteretsuena bezala aurkeztu behar, haren heriotza lotsagarria hain sarritan aipatu ordez?

Andronikoren hitzek gogoeta luzea sortu zuten: denek gogoan zituzten Pauloren esaldi ikaragarriak, elkarte zebiltzanak: “Jainkoak mundu honetako inozoak hautatu ditu jakintsuak umiliatzeko;” “Kristo gurutziltzatua beste ezer ez jakitea erabaki dut;” “Niretzat bizitzea Kristo da, eta heriotza irabazpena, eta Jainkoak libra nazala Jesukristo gure Jaunaren gurutzea ez den beste edozertaz harrotzetik;” “Guztia galeratzen daukat Jesukristo nire Jaunaren ezaguera gorenarekin alderatuta...” Hitz horiek esateak Paulo gurutzera eraman behar bazuen, beraiek ere neurritasunik gabeko bide hartatik jarraitu behar al zuten, edo gehiegikeriarako joera zeukan izaera apasionatu baten ezaugarri gisa hartu behar al zuten hori guztia? Ez al zen hizkera erradikal hori moderatu behar, beste batzuk elkartera erakarri nahi baziren?

Ebodiak hartu zuen hitza, Filipoko elkartean egondako emakumeak.

-Eta orduan zer egingo genuke Markosek bere ebanjelioan aipatzen dituen Jesusen hitz haiekin?: “Nire ondoren etorri nahi duenak uko egin diezaiola bere buruari, bere gurutzea hartu eta jarrai diezat. Izan ere, bere bizia gorde nahi duenak galdu egingo du; bere bizia niregatik eta berrionagatik galtzen duenak, ordea, gorde egingo du.” Hitz hauek ezin dira bigundu edo disimulatu, eta suz markatuta geldituko ziren entzun zituztenen oroimenean. Bestela, nor ausartuko zen neurrigabeko esaldi ezohiko bat esaten? Jesusek bakarrik esan lezake hori, eta, gainera, ez zien proposatu bere

dizipuluei bakarrik, izan ere zera esan baitzuen: “Inork nahi badu...”; beraz guri dagokigu bide ireki horretatik sartu nahi dugun ala ez erabakitzea. Izan ere, galtzearen eta salbatzearen artean hautatu behar dugu, eta aukera honek gure bizitzaren bihotzean bertan jotzen gaitu. “Pazkoa” bat suposatzen du, urrats erabakigarri bat gure aldetik Jesusi jarraitu nahi badiogu: gauzak ikusteko gure moduari, “bizia irabaztea” zer den pentsatzen dugunari uko egin eta



Maisuarengan jartzea gure uste osoa, guk baino hobeto baitaki. Eta berak galtzearen bide bitxi hori proposatzen badu, hari sinesteko prest egon behar dugu, berak ere Aitarengan sinetsi zuen bezala, gurutzetik pasatu behar izan bazuen ere. Nola esan genezake jarraitzen diogula, Maisuaren dizipulu gisa jokatzeko ez badugu?

Gau hartan Jesusen gorazarrearen hitzak entzun zituzten berriz ere, bere buruari uko egin eta heriotzara arte esaneko eginda, gurutzeko heriotza aukeratu zuela esaten diguna. Eta bedeinkatu egin zuten goratu zuen Jainkoa, beste izen guztien gaineko izena eman ziona.

GALDERAK:


Historia hau nire historia da. Jakin badakit Kristau bizitzan den dena jokoan jartzen dugula Ebanjelioak “bizia salbatu” edo “galdu” deritzan horrekin. Horretaz arrazoitzea bainoago, nahiago dut beste bide bat hautatzea: Jesusi sinetsi eta haren pentsaera eta jarduera bitxi fidatzea, eta Ebanjelioan Jesus “galtzetik” “irabaztera” eraman zuten bideak aztertzea.

Partekatu egiten dugu gure fedea. Galdetu egiten diogu geure buruari nola bizi dugun gure eguneroko bizitzan “galerak eta irabazteak” joko hori, indibidualismoak eta merkatuko legeek gobernatzen duten mundu honetan, non badirudien “nor bere buruarentzat” dela proposamen ideologiko eta kultural bakarra. Saiatu egingo gara Jesusekiko adostasuna edo adostasunik eza erakusten duten irizpideei eta erreakzionatzeko moduei izena ematen.

BERRI ONA:

Eginak 20, 17-38:

Miletotik mandatua bidali zuen Paulok Efesora, eliz elkarteko arduradunei dei eginez. Etorri zirenean, esan zien: «Badakizue nola jokatu dudan beti zuekin, Asia probintziara iritsi nintzen lehen egunetik. Apaltasun osoz zerbitzatu dut Jauna eta hainbat negar egin juduen azpikeriek sortu dizkidaten probaldiak direla eta. Ez dizuet zuen onerako izan zitekeen ezer ukatu; jendaurrean eta etxez etxe predikatu eta irakatsi dizuet, judu nahiz greziarrei, arren Jainkoarengana bihurtzeko eta Jesus gure Jaunarengan sinesteko eskatuz. «Eta orain Jerusalemera noa Espirituak beharturik, han zer gertatuko zaidan jakin gabe; dakidana hauxe da: hiriz hiri, Espiritu Santuak garbi esaten didala kateak eta nekeak ditudala zain. Baina bihiak ez dit axola, neure ibilaldia eta Jesus Jaunak eman didan egitekoa ongi burutuz gero, hau da, berri onaren lekuko, Jainkoak digun onginahiaren lekuko, izatea. «Eta orain badakit, zuen artean Jainkoaren erregetza hots egiten jardun dudan hau ez duela zuetako inork berriro ikusiko. Horregatik, argi eta garbi diotsuet gaur ez dudala neure gain hartzen inori gerta



dakiokeenaren erantzukizunik. Zeren ez baitiot inoiz uko egin Jainkoaren asmoa oso-osorik zuei adierazteari. Zain itzazue zeuen buruak eta artalde osoa, honen zaindari jarri baitzaituzte Espiritu Santuak; larra ezazue Jainkoaren Eliza, hark bere Semearen odolaz eskuratu zuena. «Badakit, ni joatean, artaldeari barkatuko ez dioten otso amorratuak sartuko direla zuen artera. Zuen artetik ere aterako dira batzuk irakaspen okerrak zabalduz, ikasleak beren

atzetik eramateko. Zaudete erne, bada, eta eduki gogoan, hiru urtez gau eta egun aspertu gabe jardun dudala zuetako bakoitzari negar-malkoz aholkuak ematen. Eta orain Jainkoaren eskuetan eta haren onginahizko mezuaren babesean uzten zaituztet; hark badu ahalmena eliz elkartea eraikitzeko eta sagaratu guztiei bere ondarea emateko. «Ez dut inoren zilar-urrerik edota jantzirik irrikatu izan. Ongi dakizue esku hauek irabazi dutela niretzat eta neurekin nituenentzat beharrezko guztia. Orotan erakutsi izan dizuet, horrela behar dela lanean saiatu gauza ez direnei laguntzeko, Jesus Jaunaren hitz haiek gogoratuz: “Zorion gehiago du emateak hartzeak baino” ». Hitzaldia bukatu, belauniko jarri eta otoitz egin zuen beste guztiekin batera. Denek negarrari eman zioten eta Paulori besarkadaka eta musuka hasi zitzaizkion. Nahigaberik handiena gehiago ez zutela ikusiko esateak ematen zien. Ondoren, ontziraino lagundu zioten.

OTOITZA: BIZITZA GASTATZEA

Jesus Kristo Jauna,
beldurra ematen digu bizitza gastatzeak.
Baina zuk horretarako eman diguzu bizitza,
gastatzeko;
ezin da hura egoismo antzuan ekonomizatu.
Hori da bizitza gastatzea: besteen alde lan egitea
pagatzen ez dutenean ere,
mesede egitea ordainduko ez duenari;
bizitza gastatzea, are porrotean murgiltzea da
beharrezko bada, zuhurtzia faltsurik gabe;
itsasontziak erretzea hurkoaren alde. (...)
Bizitza gastatu,
ez da gastatzen espantu hanpatuz
eta imintzio faltsuz.
Bizitza eman egiten da, besterik gabe,
iragarkirik gabe, ura maldan behera doan antzera,
amak bularra semeei ematen dien antzera,
ereilearen izerdi apalaren antzera. (...)
Etorkizuna enigma bat da,
gure bidea behe-lainoan murgiltzen da;
baina emanak biziz jarraitu nahi dugu,
Zu zain baitzaude gauean
malkoz beteriko mila begiz.



(Luis Espinal)